

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

2328

AGINDUA, 2013ko apirilaren 2koa, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburuarena, eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien erregistroari buruzkoa.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko abenduaren 16ko 2002/91/CE Zuzentarauaren bidez, eraikinen energia-ziurtagiria ezartzen da, Europar Batasuneko erakinen eraginkortasun energetikoa sustatzeko asmoz. Zuzentarau horretan zenbait aldaketa egin eta gero, zuzentarau horren testu bategina egin da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/UE Zuzentarauaren bidez. Bigarren zuzentarau horrek Europar Batasuneko estatu-kide bakoitzean kontroleko sistema independente bat ezartzea exijitzen du, eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien kalitatea bermatze aldera.

Eraikin berrien eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria arautzen duen azaroaren 22ko 240/2011 Dekretuan araututa dago nola gauzatu behar dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarritzko prozedura behar bezala aplikatzeko behar diren administrazio-funtzioak.

Dekretu horretan jasotzen denez, eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak erregistroan inskribatuko dira, ziurtagiri horiek beharrezko duten publikotasuna bermatze aldera. Dekretuak, gainera, erregistroa agindu baten bidez arautuko dela aipatzen du.

Hori betetzeko, agindu honek eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak inskribatzeko prozedura eta izapide elektronikoa arautzen ditu, bai eta erregistroko informazioa eskuratzeko modua aurreikusi ere.

Erregistroaren publikotasuna arautuz, bi helburu bete nahi dira: batetik, Euskal Autonomia Erkidegoan emandako ziurtagirien kontrol administratiboa hobetzea, eta, bestetik, erabiltzaileek informazio guztia erraz eskuratzeko modua izatea.

Bigarren helburu horri dagokionez, agindu honek –Herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzko ekainaren 22ko 11/2007 Legean ezarritako sinplifikatze- eta arintze-printzipioei jarraituz– informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez erregistroa sartzeko prozedura bat arautzen du, betiere inskripzio- eta informazio-eskaerak bide telematikoa eta elektrokoen bidez izapidetzea errazte aldera.

Izapidetze elektronikoa egokitu egiten da Administrazio Elektronikoa buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ezarritakora.

Azkenik, agindu honek bete egiten ditu erabili beharreko eta erregistroan bildu beharreko izae-ra pertsonaleko datuak babesteko beharrezko diren prezeptuak eta baldintzak, betiere honako hauetan ezarritakoarekin bat etorritik: Izaera Pertsonaleko Datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean, eta datu pertsonalen tratamenduari buruz aplikatzekoak diren gainerako arauetan.

Horiek horrela, azaroaren 22ko 240/2011 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen irailaren 22ko 514/2009 Dekretuan finkaturiko eskumena baliatuz (514/2009 Dekretuak indarrean dirau,

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzeko Lehendakariaren abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren xedapen iragankorrean zehaztutakoarekin bat etorriz), eta Euskadiko Kontsumoko Kontsulta Batzordeari entzun ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen bidez arautu egiten dira eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak erregistroan inskribatzeko prozedura eta erregistro horren funtzioak. Erregistro hori aurreikusita dago eraikin berrien eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak arautzen dituen azaroaren 22ko 240/2011 Dekretuaren 6. artikuluan.

2. artikulua.– Helburua.

Aurreko artikuluan aipatutako ziurtagiriak erregistroan inskribatuta, honako helburu hauek bete nahi dira:

- Jakitera ematea eraikinen kalifikazio energetikoari buruzko oinarritzko informazioa, haien ezaugarri energetikoak, inguratzaile termikoak, instalazioak, funtzionamendu-ezaugarriak, okupazioa eta eraikin baten eraginkortasun energetikoaren kalifikazioa zehazteko behar diren gainerako jakingarriak.

- Etiketa Energetikoa eskuratzeko ahalmena ematea.

- Lan tresna izatea bai administrazioentzat, bai Eraikin berrien eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak arautzen dituen Dekretuaren 10. eta 12. artikuluetan aipatzen diren erakundeentzat, hain zuzen ere eraikinen eraginkortasun energetikoaren arloan aplikagarri diren legeetan ezarritako kontrol- eta ikuskatze-lanak egiteko.

- Administrazioari laguntzea eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien aplikazio praktikari buruzko azterlanak, analisiak eta estatistikak egiten, horiek balioko baitute eraginkortasun energetikoaren helburuak hobetuko dituzten neurriak diseinatzeko eta irizpideak finkatzeko.

3. artikulua.– Inskripzioa.

1.– Erregistroan, honako hauek inskribatuko dira:

- Proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.
- Bukatutako eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria.
- Lehendik emandako eraginkortasun energetikoaren beste ziurtagiri batzuen berritzea edo eguneratzea.
- Aurreko ziurtagiri guztien inskripzioaren ezeztatzea.

2.– Inskribatu egingo dira, halaber, eraikin bateko etxebizitzaren, lokalen edo era independentean ziurtatutako atalen eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak, bai eta ziurtagiri horien berritzeak, eguneratzeak edo ezeztatzeak ere.

II. KAPITULUA

ERREGISTROAREN IZAERA

4. artikulua.– Izaera.

Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien erregistroak izaera informatikoa dauka, baina eraikinaren eraginkortasun energetikoari dagokionez bakarrik, eta ez du egiaztatuko eraikinari eska dakizkiokeen gainerako baldintzak betetzea.

5. artikulua.– Erregistroa zein organori atxikita egongo den.

1.– Energiaren arloko eskumena duen zuzendaritzara egongo da atxikita eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien erregistroa.

2.– Eraikinen eraginkortasun energetikoaren ziurtagirien erregistroa bakarra izango da Euskal Autonomia Erkidego osorako, eta eskuragarri egongo da, egoitza elektronikoa honetan: <https://www.euskadi.net>

III. KAPITULUA

INSKRIPZIO-PROZEDURA

6. artikulua.– Eskaera eta sarbidea.

1.– Eraikinaren edo haren atal independentearen jabeak edo sustatzaileak egin dezake proiektuaren eta bukatutako eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria inskribatzeko eskaera, edo, bestela, haren izenean, kasuan kasuko ziurtagiria izenpetzen duen pertsonak; denek ere kanpoko kontrolaren onespentxostena ematen den hilabetearen hurrengoan aurkeztu beharko dute eskaera. Baldin eta kanpoko kontrola egitea nahitaezkoa ez bada, inskripzio-eskaera hila-beteko epean egin beharko da, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria ematen denetik aurrera.

Nolanahi ere, eraikina edo haren atal independente bat erosi edo alokatu baino lehen, eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak behar bezala inskribatuta beharko du erregistroan, hala ezarritako baitago 240/2011 Dekretuaren 16. artikuluan.

2.– Inskripzio-eskaera modu elektronikoa aurkeztuko da, agindu honetako eranskinean ezarritako eredu normalizatuari jarraituz.

Inskripzio-eskaera bide elektronikoz egiteko, interesdunek euren burua identifikatu behar dute ziurtagiri elektronikoa onartuaren bitartez, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ezarritako eran.

Hala ere, pertsona fisikoek beharrezko diren baliabide teknologikoak eskura ez badituzte, erregistroa bertaratzeko aukera izango dute. Hala, Energiaren Euskal Erakundearen bulegoetan aurkeztu ahal izango dituzte inskripzio-eskaerak, eta hango langileek, dokumentazioa baliozkotu ondoren, erregistro elektronikoa sartuko dute eskaera, izenpe elektronikoa bitartez.

3.– Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria, kanpoko kontrola arautzen duen Aginduren I. eranskinean ezarritako ereduaren arabera emana, eta berau emateko ahala duen pertsona batek izenpetua, azaroaren 22ko 240/2011 Dekretuaren 3.1 artikuluekin bat etorritz.

- Ziurtatze energetikoaren prozedurari dagozkion fitxategi informatikoen kopia, hala badagokio.

- Lortutako kalifikazioa A, B edo C baldin bada, kanpoko kontroleko aldeko txostena, egiaztatutako agente batek emana, kanpoko kontrol hori arautzen duen aginduan ezarritako ereduari jarraituz.

4.– Interesdunek izapideak bide elektronikoz egin ondoren, erregistroak automatikoki eman-
go du hartu-agiria, elektronikoki izenpetua, Administrazio Elektronikoi buruzko otsailaren 21eko
21/2012 Dekretuan ezarritako eran. Hartu-agiriaren mezu hori interesdunak inprimatu eta informa-
tikoki artxibatzeko moduan konfiguratuko da, bai eta erregistroan identitatea bermatzeko moduan
ere.

5.– Hartu-agirian honako hauek jasoko dira:

- Erregistroko zenbaki edo kode indibiduala.

- Eskaera aurkeztu zeneko eguna eta ordua.

- Aurkeztutako eskabidearen kopia. Alde horretatik, onartu egingo da formularioan sartutako da-
tuak hitzez hitz erreproduzitzea.

- Eskabideari erantsitako agirien zerrenda eta izenak, horietako bakoitzaren hatz-marka elek-
tronikoarekin batera.

7. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Baldin eta aurkezturiko eskabideetan agiriren bat falta edo akatsen bat badago, interesdunei
eskatuko zaie hamar eguneko epean zuzen dezatela oker dagoena edo aurkez dezatela beharrez-
ko den dokumentazio guztia. Horretaz gain, adieraziko zaie ezen horrela egiten ez badute, beren
eskabidean atzera egin dutela joko dela, betiere egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- Inskribatu beharreko egintza edo agirietan forma-akatsak baldin badaude.

- 6.3 artikuluan eskatzen diren agirietakoren bat aurkeztu ez bada.

- Euskarri digitalean aurkeztutako agiriak eskuratzerik ez badago.

8. artikulua.– Ziurtagiriak inskribatzea eta etiketatzea.

Agindu honetan adierazitako baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, ziurtagiriak inskriba-
tu egingo dira erregistroan.

Behin ziurtagiria inskribatuta, erregistro-zenbakia jakinaraziko zaio sustatzaileari edo jabeari,
eta, halaber, adieraziko zaio aurrerantzean eskuragarri izango duela aplikazio informatikoaren
bitartez eraikin-proiektuaren edo bukatutako eraikinaren eraginkortasun energetikoaren etiketa.

9. artikulua.– Inskripzioak ezabatzea.

1.– Inskripzioak ezabatu egingo dira, egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

- Ziurtagirien inskripzioaren indarraldia bukatu, eta berritu ez bada.

- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eguneratu ez bada, betiere azaroaren 22ko 240/2011 Dekretuaren 5.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan (240/2011 Dekretua, Eraikin berrien eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriak arautzen dituen).

- Dударik gabe egiaztatu baldin bada modu independentean ziurtatutako etxebizitzek, lokalek edo atalek dagoeneko ez dituztela betetzen eman zitzaizen ziurtagiri independentea justifikatzen zuten baldintzak, eta, betiere, hala egiaztatu baldin bada egindako ikuskatzeen bidez, erregistroan aurkeztutako eguneratzeen bidez edo beste edozein arrazoi dela medio.

- Edozein arrazoi dela eta, ziurtagiria jaso duen eraikina desagertu dela egiaztatu bada.

10. artikulua.— Agirien formatua.

Igorritako agiri informatikoak irakurtzea eta izapidetzea onartuko da, baldin eta organo eskudunak onartuko formatuen arabera bidali badira.

11. artikulua.— Erantzukizuna.

Erabiltzaileek erregistroaren zerbitzuak iruzur egiteko baliatzen badituzte, energia-arloko eskumena duen zuzendaritzak ez du erantzukizunik izango. Alde horretatik, erabiltzaileen erantzukizun eskusiboa izango dira bai administrazio elektronikoaren zerbitzu horietan sartzean euren burua kautotzeko beharrezko diren elementuen zaintza, bai beharrezko den konexioaren ezarpena, bai sinadura elektronikoaren erabilera, bai eta horien guztien erabilera desegoki, oker eta arduragabearen ondorioak ere. Erabiltzaileen erantzukizuna izango da, orobat, erregistro elektronikoak hartu-agiri gisa bueltatzen dizkien fitxategiak egoki zaindu eta erabiltzea.

12. artikulua.— Baliabide elektronikoen bidez jakinaraztea.

Baliabide elektronikoen bidezko jakinarazpenak <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoan egingo dira —Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritik, eta, betiere, egintza administratiboaren jakinarazpenetarako ezarritako baldintzak beteko dira.

IV. KAPITULUA

ERREGISTROKO INFORMAZIOA ESKURATZEA

13. artikulua.— Erregistroko informazioa Internet bidez eskuratzea.

1.— Aurreko artikuluetan ezarritakoaz gain, interesdunek erregistroko informazioa ikus dezakete eta informazio horren oinarri diren agiriak eskuratu, agindu honetan ezarritako eran. Nolanahi ere, izaera pertsonaleko datuak babesteko bermeak bete beharko dira, arlo horretako legedian ezarrita dagoen eran.

2.— Informazioa Interneteko web orrien bidez eskuratu ahal izango da, erregistroaren egoitza informatikoan, eta, orri horietan, gutxienez honako hauek jasoko dira:

- Ziurtagiria jaso duen eraikin, etxebizitza, lokal edo eraikin-zatiaren identifikazioa.
- Ziurtagiria eraikin-proiektu batena edo bukatutako eraikin batena den.
- Ziurtagiria etxebizitza bati edo etxebizitzaz besteko erabilerak dituen lokal bati dagokion.
- Indarrean den ziurtagirian adierazten den kalifikazio energetikoa, eraginkortasun energetikoaren eskalari jarraituz.

- Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiriaren indarraldia.
 - Lehendik emandako eraginkortasun energetikoaren beste ziurtagiri baten berritzea edo eguneratzea bada, hala zehaztuko da.
 - Lehendik emandako eta gerora eguneratutako edo berritutako ziurtagirien zerrenda, halakorik bada, bai eta horien kalifikazio energetikoak eta kanpoko kontroleko txostenen emaitzak ere.
- 3.– Web orri horretan, halaber, erregistroan jasotako eraikin, etxebizitza, lokal edo eraikin-zatiei dagozkien idazpen, idatz-ohar eta agiriak bildu daitezke.

IV. KAPITULUA

ZEHAPEN-ARAU BIDEA

14. artikulua.– Zehapen-araubidea.

Agindu honetan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, zehapenak ezarri ahal izango dira, Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaile eta bezeroen Estatutuari buruzko 6/2003 Legearen 50. artikuluko 4., 5. eta 6. paragrafoetan eta azaroaren 22ko 240/2011 Dekretuaren 21. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Datuen tratamendua eta datuetan sartzeko eskubidea.

1.– Erregistroa titulartasun publikoko fitxategia izango da, honako xedapen hauetan ezarritakoaren ondorioetarako: Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa garatzen duen 1720/2007 Errege Dekretuan eta Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoaren ondorioetarako, alegia.

2.– Agindu honetan xedatutakoa aurreko paragrafoan aipatutako legeetan ezarritakoarekin bat etorritz aplikatuko da, bai eta izaera pertsonaleko datuen tratamenduari buruz aplikagarri diren gainerako arauetan ezarritakoarekin bat etorritz ere.

3.– Halaber, interesdunek urriaren 18ko 308/2005 Dekretuan aitortzen zaizkien eskubideak baliatu ahal izango dituzte –lege horren bitartez, otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen da–, bai eta izaera pertsonaleko datuak babesteko indarreko arauetan aitortzen diren gainerako eskubideak ere.

Alde horretatik, interesdunek, Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ezarritako eran identifikatzen badira, espedientea modu elektronikoan eskuratzea izango dute. Espedienteko agiriak, bestalde, eskuragarri egongo dira dekretu horretan eta 308/2005 Dekretuko 6. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako formatu guztietan.

AZKEN XEDAPEN ETATIK LEHENENGOA.– Garapena.

Energia-arloko eskumena duen zuzendaritzari baimena ematen zaio agindu hau garatu eta aplikatzeko xedapenak emateko eta, era berean, agindu honetan nahiz Kanpoko kontrola arautzen duen 2012ko abenduaren 12ko Aginduan ezarritako eranskinak aldatzeko. Ebazpen horiek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta <https://www.euskadi.net> egoitza elektronikoan argitaratuko dira.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA.— Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabetera jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko apirilaren 2a.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.

2013ko maiatzaren 20a, astelehena

ERANSKINA

EREDU NORMALIZATUA, ERAGINKORTASUN ENERGETIKOAREN ZIURTAGIRIA ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO ESKABIDEARENA

Inskripzio-eguna

Inskripzio-zk.

1	ESKATZAILEAREN DATUAK		
Sustatzailea:		Jabea:	
Izen-abizenak/Helbidea:			
IFZ/IFK:			
Helbidea:			
Herria:			
PK:	Lurralde historikoa:		Herrialdea:
Telefona/Faxa:			
Helbide elektronikoa:			
Ordezkaria:			

2	ERAIKINAREN IDENTIFIKAZIOA:		
Eraikinaren erabilera (*1):			
Eraikinaren izena:			
Katastro-erreferentzia:			
Helbidea:			
Herria:			
PK:	Lurralde historikoa:		

(*1): 1) Etxebizitza (familia bakarreko mota desberdinetako etxebizitzak, etxebizitza-eraikinak, eta abar).
 2) Beste erabilera batzuk (bulegoak, ikastegiak, ospitaleak, hotelak eta jatetxeak, kirol-instalazioak, merkataritza-eraikinak edo bestelako eraikinak).

3	JAKINARAZPENARI BURUZKO DATUAK		
Hizkuntza ofiziala:	☐ Gaztelania	☐ Euskara	
Lehentasunezko bidea (*2):	☐ Posta elektronikoz	☐ Posta arruntez	
☐ BERARIAZ ONARTZEN DUT jakinarazpen telematikoa egitea, honako xedapen hauetan ezarritako eran: Herritarrak zerbitzu publikoetara bitarteko elektronikoz sartzeari buruzko 11/2007 Legean eta Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuan ezarritako eran, alegia (*2).			

(*2): Eskatzailea pertsona fisikoa bada baino ez da beteko.

4	INSKRIPZIO-IZAPIDEA		
a) Proiektuaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria			
☐ Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria inskribatu			
b) Bukatutako eraikinaren eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria			
☐ Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria inskribatu			
☐ Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria berritu			
☐ Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria eguneratu			
Lehenengo inskripzio-zk. (*3)			

(*3): inskripzioa berritu edo eguneratu nahi izanez gero bakarrik beteko da.

5	AURKEZTUTAKO DOKUMENTAZIOA
☐ Eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria	
☐ Lortutako kalifikazioari buruzko fitxategi informatikoen kopia	
☐ Kanpoko kontrolaren txostena	

6	CD-ROM EUSKARRIAN BILDUTAKO EDUKIA
☐ Eraikinaren simulazio energetikoari dagozkion fitxategiak, onartutako programen arabera aurkeztuak	
☐ Beste dokumentu batzuk:	

7	DATU- BABESA
Izaera Pertsonaleko Datuak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, honako hau JAKINARAZI DIDATE: - Eskabide honetan eta erantsitako dokumentazioan bildutako datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko dira, ondoren erabili ahal izateko. Fitxategi hori, hain zuzen ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagirien Erregistroko euskarri gisa erabiltzen da. - Bilketa eta tratamendu horren helburua da datuon tratamendu estatistikoa egitea. - Nahi izanez gero, datuak eskuratu, zuzendu, deuseztatu edo aurkatzeko eskubidea erabil dezaket. Horretarako, idatzi bat bidali beharko diot energia-arloko eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzari (Donostia kalea 1, 01010 Victoria-Gasteiz-Araba).	

8	OHARRAK

Behean izenpetzen duen eskatzaileak adierazten du egiazkoak direla eskabide honetan emandako datu guztiak eta bat datozela honi erantsitako eraginkortasun energetikoaren ziurtagirian ageri direnekin.

-(a)n	20	ko	_____aren	_____a
-------	----	----	-----------	--------

Sinadura: